

KONTZERTUAK HM Txokoan

Neguko kontzertua

2007ko urtarrilaren 13an- arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Julen Begoña, Josu Landeta eta Asier Arroyuelo

(alboka, kantu eta panderoa)

Julen Begoña 1989ko urrian hasi zen alboka ikasten, Erromoko Kultur Etxean, Ibon Koteron irakaslea zegoela. 1990an *Taloburni* izeneko taldea sortu zuen, aldi berean Sopelan eta Barakaldoko Hala Dzipo lokaletan alboka erakusten zuelarik. Urte haietan herriz herri ibili ziren asko, Rufino Arrolarekin behin baino gehiagotan gurutzatuz,... Parisko



Fresnes espetxearen aurrean alboka joaldia ere gogoratzen dute, tartean batzuetan handik presaka alde egin behar izatearena ere, bai eta Belgikan, kultur aste batean emandako zenbait kontzertu. Gaur egun albokarien topaketetara joateaz gain badute zenbait emanaldi finko urtean zehar eta ez dira horietara faltatzen.

Kontzertu honetan egongo dira:

Julen Begoña: Alboka

Josu Landeta: Pandero eta kantua

Asier Arroyuelo: Pandero eta ahotsa

Kontzertua:

1. *Puntepioa*
2. *Ederregia zera zu (Leonen jota)*

3. *Josetsuk (Leonen porrusalda)*
4. *Mendi altuen edurre (Julenen jota)*
5. *Txikitsuterik (Julen, Mauriziaren kanta)*
6. *Fandangoa (Beltran) mimridola*
7. *kalejira (Beltran) mimrire mifa*
8. *Ama zuriak neri (kanta Julen, herrikoia)*
9. *Do mri dola (Leonen kalejira herrikoia)*
10. *Begire nago (Julenen jota bi)*
11. *Martza baten lehen notak (Ibon, Mikel Laboa)*
12. *Dringilin dango (Ibon eta Kepa)*
13. *Txikitsu polita (Leonen porrusalda)*
14. *Tarzan (Julenen kalejira)*
15. *Mutil txaleko gorri (Beltran)*
16. *Eguzkie joan da (buelta biko porrusalda, Leon)*
17. *Artolak deuko (Leonen kalejira)*

SUONI DELLA TERRA

Zampogna italiarra, sakratua eta profanoaren artean



irakaslea ere bada. **Gianluca Zammarelli** ciaramella eta chitarra battente jole trebea da eta ederki ezagutzen du Italiako hego-erdiko musika tradizionala. Herri musikako talde garrantzitsuenekin egin ditu kolaborazioak.

Soinu-tresnak

*Zampogna
Ciaramella
azaleko flauta
Ahotsa*

Festa, erritua, kantua eta Italiako zenbait herrietako musika tradizionala ezagutuko ditugu kontzertu honetan. Nekazal-artzain munduko soinu-tresnen artean nagusia den zampognaren aintzineko hotsekiko omenaldia izango da eta haren bidez tarantelak, saltareliak, novenak eta kanta erlijiosoak entzun ahal izango ditugu. Musika horrek, jatorrizko soinuak berrosatuz betidaniko emozioak berraurkitzera eramango gaitu.

Alessandro Mazzioti haizezko soinu-tresna tradizionala eta bereziki zampognan aditu handienetakoa da. Soinu-jole gisa maila internazionalakoa da eta herri musikaren ikertzaile garrantzitsuenen artean kokatu daiteke. Ettore De Carolis, Mimmo Epifani, Clara Murtas, Ambrogio Sparagna eta Carlo Faiello bezalako artistekin kolaborazioak egiteaz gain lan handia egiten ari da didaktika eta hedatze arlotan, zenbait lan argitaratu dituelarik. Ciaramella, Zampogna a chiave, Zampogna Zoppa, Surdulina eta Ciaramelle d'Amatrice soinu-tresnen

Kontzertua (ggb)

Abruzzo : Saltarello - Stornelli

Lazio : Saltarelli - Ballarella - Canti su zampogna - Novena - Caprareccia - A Pastorizia - Pastorella - Serenata

Campania : Tarantella - Pastorale - Novena - Canto su zampogna - Serenata - A passo

Lucania : Tarantella lenta - Pastorale - Passeggera

Calabria : Tarantella - Canto su zampogna

Neguko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:

AUZOKALTE

ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA